

adierazpena

Joan den urrian ikasturtea hasi zenean, Entzualdi Publiko batean Udalarekin lan egitea proposatu ziguten irakasleek eta monitoreek Donostiako neska eta mutilei. Esan digute gai baten inguruan informazioa eman nahi digutela, gurekin eztabaidatu, azalpenak egin, asmoak elkarri azaldu, adostasunak bilatu, adostasuna lortu, gero gure gogoetak eta proposamenak Udalari behar bezala aurkezteko, bertan azter ditzaten eta aurrera eraman daitezkeen ala ez ikus dezaten.

Gutako batzuentzat hori berria zen, beste batzuentzat ez, lehen ere parte-hartzaile izateagatik aurreko Entzunaldiren batean. Lan gehigarri bat zen denentzat, baina ahalegina egiteak merezi zuela pentsatzen genuen; eta gainera, Bartzelonako gure adineko jendea ezagutzeko aukera izango genuen.

Oraindik gehiago harritu ginen esan zigutenean aztertu beharreko gaia, edo hobeto esanda gaiak, hiru izango zirela: drogak, elikadura eta segurtasunezko sexualitatea, hori guztia gai handi baten barruan: "ohitura osasungarriak". Orain hain zuzen ere, ikasturte honetan zehar, alde guztietatik iritsi zaizkigu honekin zerikusia duten albisteak: gizentasuna, estetika-ebakuntzak, droga-kontsumoa, kontsumo horiekin zerikusia duten gaixotasunak... eta gure etxean bigarren hezkuntza hasi dugunetik behin eta berriro esaten digute kontuz ibiltzeko, gauzak esateko, oraingo hau da beldur gehiena duten garaia eta batzuetan gauza horiekin nekatu egiten gaituzte.

Zuentzat ez da gauza berria izango beste behin esaten badugu "ia inork ez gaituela ulertzen", horregatik pentsatu dugu garrantzikoa dela denok beste urrats bat egitea eta gai horiek nola sentitzen ditugun eta nola bizi ditugun zuei azaltzea.

Lehenengo ikusi ahal izan dugu horren inguruan bakoitzaren esperientziak eta errealitatea oso desberdinak direla eta gai horiek, berez, hiru entzualdi baino gehiago hartuko lituzketela. Seguru aski proposamen zehatzak baino gehiago, horietakoak ere badira, adierazpen honetan aurkitu ahal izango ditugunak gure artean aztertutako pentsamenduak izango dira, eta ez da gutxi, asko hitz egin dugu inolako presiorik gabe, baita entzun ere, adostasuna lortu behar izan dugu...

Beste galdera batzuk ere sortu zaizkigu: Egiten ari garen lan guztiak zerbaitetarako balio ote du? Politikariek kontuan hartuko gaituzte? Nori interesatzen zaizkio era honetako ekimenak? Zergatik? Gai honi buruz badugu zer eztabaidatua, eta agian gai egokia izan daiteke datorren urtean proiektu honetan sartuko diren ikasleei proposatzeko...

Eta orain, "Non geratuko gara?" galdetu dezakegu, adibidez hurrengo orrietan.



adierazpena

DROGAK

Gai honek kezka handia sortzen digu eta nahiko lan izan dugu horren inguruan ados jartzen; gutako bakoitzak oso esperientzia desberdinak ditugu... Zer, zenbat, nola, non, arazoak... Oraintxe emango dizuegu horren guztiaren berri.

NOLA IKUSTEN DUGU GAI HORI DONOSTIAN?

- Oro har, **iruditzen zaigu Donostia droga-kontsumoa nahiko handia dela**; batez ere alkohola, tabakoa eta kanabisa kontsumitzen dira. Horien aldean beste droga batzuen kontsumoa txikia edo nahiko txikia da. Gainera, jendea gero eta lehenago hasten da drogak hartzen, eta denetik gainera.
- Drogei dagokienez, **aste barruan tabakoa eta porroak gehiago kontsumitzen dira, eta asteburuan berriz alkohola**.
- Dantzalekuetan (Ilunbe aldean) pilulak eta alkohola kontsumitu ohi dira. Gaez alkohol gehiago kontsumitzen da. Beste leku batzuetan ere kontsumitzen da: hondartzan eta Urgullen, San Telmon, Konstituzio Plazan, Santa Marian, Trinitate Plazan eta Zuloaga Plazan (litronak), alokatutako lokal partikularretan eta abar.
- **Alkohola edo tabakoa erosteko ez dago inolako eragozpenik**, supermerkatuan edo tabernetan erosten dira.

NOLA BIZI DUGU?

4

- **Gure artean denetik dago. Drogak kontsumitzen ditugunok arrazoi asko ditugu horretarako:** taldean hobeto integratzeko, desberdinak ez izateko, baztertuta gaudela ez sentitzeko, helduak garela sentitzeko, drogak hartu ondoko sentazioa gustatzen zaigulako (denbora laburrean), parrandan denbora gehiago irauteko, besteak baino gutxiago ez garela sentitzeko, lotsagatik, probatzeagatik, ondo pasatzeko eta festa luzatzeko, hainbeste ez aspertzeko.
- **Drogak kontsumitzen ez ditugunok arrazoi ezberdinak ditugu horretarako:** txikitan informazio egokia eman digutelako, gurasoek izango duten erreakzioaren beldur garelako, gutako bakoitzaren izaeragatik, kontra egiteagatik, probatu eta gustatu ez zaigulako, drogek berez dituzten arriskuez jabetu garelako, gugan izan dezaketen ondorioen beldur garelako, osasuntsu egon nahi dugulako, edo harremanetarako behar ez dugulako. Batzuetan zakar samar eskatu behar diogu jendeari gu bakean uzteko, ez dugula drogarik nahi. Guk nahiago dugu entzun ume batzuk garela, eta ez gure bizitza horrela hondatzea.
- **Droga-kontsumoak era askotako arazoak sortzen ditu:** psikologikoak, ikasketa-arlokoak, fisikoak, kontrolrik gabeko sexu-harremanak, diru-arazoak, familiarekiko konfiantza-falta, lagunekiko eztabaidak, trafikostripuak, jokaera-arazoak, lege-arazoak eta eragozpenak eta hondamena gizartean.
- **Zer droga hartzen den eta noiz eta zenbat hartzen den kontuan hartuta**, arazo gehiago edo gutxiago sor daitezke. Baina hala ere, mendekotasuna sortzen digun edozein substantzia da droga. Botika batzuk ere droga dira.
- Guretzat etsenplu txarra izango litzateke gure irakasleek drogak hartzea.
- Guretzat etsenplu txarra izango litzateke gure gurasoek legez kanpoko drogak hartzea, edo legezko drogak neurririk gabe hartzea.
- **Etxean beldur dira eta babestu nahi gaituzte**, baina batzuetan pasatu egiten dira. Arazoagatik beragatik baino gehiago kezkatzen dira guk kale egin diegulako. Zorrotzegiak dira.
- Gure anai-arrebek eta lagunek drogak hartzea kaltegarria eta kezkarria irudituko litzaiyuke.

ZER MODUZKO INFORMAZIOA JASOTZEN DUGU?

- **Oro har, ez dugu nahikoa informazio;** dugun informazioa beste era batean lortu dugu, adibidez, "eskarmentua" duten lagunekin hitz eginez, Interneten, liburuetan eta liburuxketan begiratzuz, familiari, irakasleei eta kaleko hezitzaileei galdetuta edo gai horri buruzko ikastaroetan ikasita; arazo bat dugunean oso garrantzitsua hori beste norbaiti kontatzea, baina ez dakigu nora jo.
- **Guraso batzuk ez daude ondo informatuta,** ez dakite zer egin, laguntzen ari direla uste dute baina gauzak okerrago jarri besterik ez dute egiten.
- Donostian badira gai horretaz arduratzen diren elkarte batzuk: Gizakia Helburu, Askagintza, Agipad, ...

NOLA JARDUN BEHAR DUGU?

- **Nahikoa informazio jaso ondoren, egiten eta kontsumitzen dugunaren ardura osoa izan behar dugu.**
- **Zentzuz eta neurriz** jarduteko konpromisoa hartu behar dugu.
- **Drogak hartu ondoren gidatzea oso arriskutsua da, eta arrisku hori baztertu egin behar dugu.**

PROPOSATZEN DUGU...

- Informazio-**zentro** gehiago izatea.
- Informazio-hitzaldiak gazteagoentzat ere antolatzea, gero eta lehenago hasten baitira drogak kontsumitzen, eta hitzaldi horietako partaideak pertsona adituak, gazteak eta atseginak izatea, beraiekin lasai hitz egiteko modukoak, gai horretan zer esana edo eskarmentua dutenak; era horretan, lagunek azaltzen ez dizkiguten ondorioen berri eman ahal izango digute.
- **Benetako egoera ezagutu** nahi dugu; horregatik proposatzen dizuegu era horretako zentroak bisitatzea edo esperientzia hori izan dutenak ikastetxeetara joatea eta informazio-hitzaldiak ematea.
- Gurasoentzako informazio-**kanpainak** egitea. Kanpaina objektiboak.
- Errealista izan behar dugu eta jendeak droga hartzen duela onartu. Ez dugu nahi inork gure umeen aurrean droga hartzea, ezta beraiek elkar ez kutsatzeko xiringak konpartitzea ere; horregatik, xiringa berriak hartzeko leku bat jartzea proposatzen dugu. Narkogela bat eta desintoxikaziorako leku gehiago jartzea.
- Gazteak gabiltzan lekuetan **kontrol** gehiago egitea, trapitxeoa galarazteko eta abar.
- **Guztientzat izango diren leku espezifikoak** behar ditugu; horregatik Udalari eskatzen diogu gazteentzat lokal edo pabiloi gehiago antola ditzala, bertan jarduera desberdinak egin ahal izateko.
- Gune libreak ere beharrezkoak direla uste dugu; beraz, lehendik daudenak ez kentzeko eskatzen dugu.
- 16 urtetik hasita haxixa eta marihuana legezkoak izatea proposatzen dugu



adierazpena

SEXUALITATEA

Gai honetan **gauza asko nahastu dira**: dakiguna, oraindik ez dakigula uste duguna, beldurrak, sentimenduak, moztadea, diskriminazioa...

NOLA BIZI DUGU?

- Gaur egun, normalean, gazte-jendeak **naturaltasun** handiagorekin bizi dugu sexualitatea, lehenago sexuaz hitz egitea tabua baitzen. Gainera, gure harremanetan **berezkotasun** handiagoa dugu; ez zaigu inporta jendearen aurrean gure maitasuna erakustea.
- Orain konfiantza handiagoa dugu gurasoekin hitz egiteko, baina oraindik ez da nahikoa. Gurasoak nolakoak diren ere oso kontuan hartu behar da, zure sexu-harremani buruz gauza batzuk kontatzen badizkiezu, kapaz baitira zu bertan "garbitzeko".
- Sexualitatearekin zerikusia duten eta jendeari kezka handiena sortzen dieten gaiak nahigabeko haurdunaldiak eta, neurri txikiagoan, sexuaren bidez kutsatzen diren gaixotasunak dira.
- **Sexu-harremanak oso gaztetan hasten dira**. 15-16 urte inguruan hasten denik ere bada.
- Metodo **antikonzeptibo gehienak lortzea ez da erraza izaten**, lotsa ematen digulako eskatzeak. Sexu-harremanetarako metodorik erabiliena kondoia da; erraz asko eskura daiteke, kalean, dantzalekuetan, farmazietan kondoi-makinak daudelako.
- Sexu-indarkeriazko kasuren bat gertatuz gero gurasoei esango genieke eta salatu egingo genuke.

6

Informazioari dagokionez...

- Pertsona askorengandik jasotzen dugu gai honi buruzko informazioa: psikologoak, institutuan hitzaldiak ematen dituzten adituak, kale-hezitzaileak. Gurasoak, irakasleak. TBko "2 rombos" programa, internet, film pornoak, sexuari buruzko kanpainak, liburuxkak, aldizkariak, "sexua zentzuz" kanpainak eta abar.
- **Badugu informazioa baina ez da nahikoa zalantzak argitzeko**, batez ere gai hauetan:
 - STG: arazoak, sintomak, ondorioak.
 - Haurdunaldiak
 - Birjintasuna galtzea (beldurrak, nerbioak)
- Etxean ematen digutena oinarri-oinarrizkoa da, eta ez da nahikoa. Lehendik dakiguna besterik ez digute errepikatzen, eta gainera aurrez aukeratu egiten dute zer jakin behar dugun eta zer ez. Gurasoekin dituzun harremanen arabera, gai bati buruz hitz egin ahal izango duzu edo ez (gainerako gai guztietan bezala). **Ez dira gure zalantzak galdetzeko moduko elkarrizketa lasaiak izaten.**
- Etxean eta eskolan izan ditzakegun arazoen berri ematen digute. Baina gutxitan esaten digute zer egin behar dugun arazoa sortzen denean. Besteen sentimenduak errespetatzen erakusten digute.
- Batez ere **koadrilan hitz egiten dugu**; elkarri gure esperientziak kontatu eta gure arazoei buruzko informazioa trukatzeko dugu, nahiz eta informazio hori batzuetan okerra izan.
- Badakigu badirela familia-plangintzarako zentro batzuk eta baita erakunde pribatuak (Askabide) eta publikoak (kale-hezitzaileak), eta unibertsitatean sexu-orientaziorako zentro bat dagoela, baina gehienok ez dakigu non dauden.

PROPOSATZEN DUGU...

- **Adituak nahi ditugu** (sexologoak, psikologoak, ginekologoak eta abar) ikastetxera guri sexu-heziketa ematera etorriko direnak. Nahi dugu sexuari buruzko egiazko ikuspegi bat jaso, ez gai jakin batzuen ingurukoa edo goi-mailako ikastarotakoa bakarrik. Sexu-heziketa 10 urte ingurua hasia nahi dugu eta informazioa adin bakoitzari egokitzea. Ez dago adin jakirik informazioa emateko, hurrek ere galdetu egiten baitute.
- **Sexu-arretarako zentro bat** sortzea nahi genuke, zentro hori asteko zazpi egunetan **eguneko 24 orduetan** irekita egotea, bertan **gure intimitatea babestea, informazioa konfidentziala** izatea, pertsona guztientzat **zabalik** egotea eta bertan bi sexu-etako profesionalak egotea, ahal dela gazteak, gure ikuspegiaren antzeko irizpidea izango baitute, eta horiekin gusturago sentituko baikara.
- **Informazio praktikoa** nahi dugu (helbideak, telefonoak eta abar) gure "arazoak" eta zalantzak argitzeko kanpainen bidez, ikastetxeetan eta abar. Gustatuko litzaiguke **informazio-zerbitzu hori gu ibiltzen garen lekuetan egotea: Gaztelekuetan, Kulturetxeetan...**
- Adin bertsuko taldeak sortu nahi ditugu, ikastetxean, kultur etxeetan eta beste zenbait lekutan sexuari buruz hitz egiteko.
- Gurasoei proposatzen diegu gaia naturaltasun handiagoarekin tratatzea, oraindik ume batzuk garelako uste baitute. Beren zalantzak argitu egin behar dituzte, gaiak objektibotasunez aztertu, guri lagundu eta etor daitezkeen ondorioei dagokienez konfiantza eman.
- **Gurasoen sexu-heziketarako programak;** horien bidez gurasoek behar bezalako sexu-heziketa jasoko dute eta aukera emango diete seme-alabei beren zalantzak, beldurrak eta abar oso-osorik, argi eta lotsarik gabe agertzeko.

Diskriminazioari dagokionez...

- **Sexu-bereizkeriak arazo ugari sortzen ditu oraindik**, baina ez dugu ezkorrak izan behar, **denon artean gauzak alda ditzakegu eta aldatu egin behar ditugu.**
- Uste dugu gaur egun gizonen eta emakumeen artean berdintasun handiagoa dagoela, baina neskek oraindik aukera gutxiago ditugu. Adibidez, lan batzuetan neskek gutxiago kobratzen dugu; eta etxean ere, mutilek erraztasun handiagoa dute gaez irteteko.
- Gaur egun neskek gure bikote-lagunekin konfiantza osoa dugu sexu kontuan zer nahi dugun eta zer gustatzen zaigun esateko.
- Batzuek pentsatzen dute oraindik mutil batek hiru neskekin "historiaren bat" duenean oso gizona dela, baina neska bat hiru mutilekin hasten bada, mari-purtzil bat dela esango dute.
- **Emakumeak gizonak baino gehiago arduratzen gara** sexu-harremanen ondorioez, hardun geratzeko arriskua baitugu, nahiz eta neurriak bien artean hartu behar diren.
- Gaur egun tratu txarrei buruzko informazio gehiago dugu, baina **oraindik badira tratu txarrak, baita gazte-jendearen artean.**
- Batzuetan atentzioa ematen digu kalean sexu bereko bikoteak jarrera maitekorretan ikusteak; hala ere, gero eta toleranteagoak gara gai horretan.
- **Pertsona bakoitzaren sexu-orientazioa norberaren kontua da, horregatik norberak askatasun osoz erabaki beharreko gaia da.**

PROPOSATZEN DUGU...

- **Jendearen sexu-orientazio desberdinak errespetatzen ditugula erakutsi** eta pertsonak diren bezalaxe onartu behar ditugu.
- Diskriminazioa erabat baztertzeko pertsona bakoitzak ahalegina egin behar du egunero **beste sexukoak errespetatzeko**: diskriminazioa adierazten duten txisteak kontatu eta lizunkeriak esaten dituenari kasurik ez egin eta besteen gutxiagotasun fisikoa barregarri ez hartu.
- Diskriminazioari aurre egiteko beste aukera bat **berdintasunerako legeak zorrozki betearaztea da**. Jazarpena, bortxaketa eta abar gertatzen direnean legeak gogorragoa izan beharko luke.
- Emakumeen aurkako bereizkeriari aurre egiteko proposatzen dugu gazteentzat erreferentzia izan daitezkeen famatuen bikote batek (neska eta mutila) argi eta garbi adieraztea era guztietako diskriminazioen kontra daudela, hau da, gazteek imitatzeko moduko eredu izan daitezela.



adierazpena

OHITURA OSASUNGARRIAK

ELIKADURA-IRUDIA-PUBLIZITATEA

ELIKADURA

Guretzat ez da erraza **elikadura osasungarria**ren beharraz ondo jabetzea, gutako gehienok behintzat ez baitugu gai horretan arriskurik ikusten. **Osasunagatik** baino gehiago **irudiagatik** arduratzen gara, kilo batzuk soberan edo faltan ditugula ikusten dugunean...

NOLA BIZI DUGU?

- Asteburuan ez gara dietaz gehiegi arduratzen; ez gara horrenbeste mugitzen, janari merkea duten lekuetara joan eta litxarrerria gehiago jaten ditugu. Uste dugu osasuna zaindu behar dela, baina noizean behin ez dago gaizki kapritxoren bat izatea.
- Batzuetan nahiago izaten dugu gosaldu gabe geratu, ohean pixka bat gehiago egoteko; beste batzuetan ez dugu gosaltzen, ez dugulako "gogorik". Gosaltzen ez dugunean kalean zerbait erosi edo gehiago bazkaltzen dugu. Badakigu ez dagoela ondo, baina batzuetan ez dugu bat ere jaten, argaltzeko, eta hurrengo egunean goseak akabatzen egoten gara eta sekulako betekada hartzen dugu.
- Azterketengatik urduri samar gabiltzanean, edo etxean aspertuta gaudenean, etengabe mokadutxoak jaten hasten gara; gainera, ikasten ari garen garaian atsedenditxo bat hartzeko primerako aitzakia da hori.

NOLA JARDUN BEHAR DUGU?

- **Ondo eta denetik jaten ikasi behar da**, baina etxean txiki-txikitatik erakutsi behar digute, gero hel-duagoak garenean zaila baita beste era batera elikatzen ikastea, nahiz eta elikadura osasungarriagoa izan.
- **Gorputz osasuntsua** izan nahi badugu denetik jan behar dugu, eta urte osoan ariketa egin. Argaldu nahi izanez gero, dieta egoki eta neurritsua egitea da egokiena. Dietak batez ere udan eta Gabonak ondoren egin ohi dira.

PROPOSATZEN DUGU...

- Elikadura-gaietan adituak diren **profesionalen talde bat** sortzea, ikastetxeetara joan eta jan-edanaren inguruan informazioa eman eta ohitura egokiak erakusteko. Hitzaldi horietan benetako informazioa jaso nahi genuke, gaizki jateak zer ondorio dakartzan jakin, eta hitzaldi horiek parte hartzeko modukoak eta atseginak izan daitezela. Gainera, elikadura txarraren ondorioak jasan behar izan dituzten pertsonen iritzia ere entzun nahi genuke.
- Ondo iruditzen zaigu ikastetxean janari-makinak egotea, baina janari osasungarriagoa izan beharko lukete.
- Urtero guri **nutrizio-azterketak** egitea proposatu nahi dugu, gerora izan ditzakegun osasun-arazoei aurrea hartzeko, eta aldatu behar ditugun elikatze-ohiturak jakiteko.
- Badakigu zabor-jana ematen duten establezimenduak ezin direla itxi, baina era horretako lekuen orde z honako aukera proposatu nahi dugu: Udalak, hirian janari osasungarria ematen duten establezimenduekin batera (taberna, jatetxeak, dendak...), **beherapen-txartel** bat atera dezala, gazteek leku horietan prezio onean jateko modua izan dezaten.
- Donostian jendeak kirol dezente egiten du, batez ere mutilek. Gure ustez, neskentzat baino mutilentzat

jarduera-eskaintza gehiago egiten direlako gertatzen da hori. Horregatik, proposatzen dugu **ohiko kirolez gainera bestelako kirol "alternatiboak" buruz** (eskalada, yoga, arku-tiroa) informazio gehiago ematea. Iruditzen zaigu era horretan jende gehiago animatuko dela kirol egitera.

- Gainera gustatuko litzaiguke Udalak kirol guztien berri emateko informazio-kanpainak egitea, eta horretarako gure inguruan ezagunak diren kirolariek (Naroa Agirre, López Rekarte...) lan egitea.

IRUDIA

Jende gehiena, eta helduak ere bai, **erabat kezkatuta daude beren gorputzekin...**

NOLA BIZI DUGU?

- Zaila da **modaz "paso" egitea**. Desberdina bazara, zure benetako lagun ez direnek kaña emango dizute.
- Jendea janzeragatik, orrazkeragatik, tatuajeengatik, pircing-engatik... sailkatu ohi dugu talde batean edo beste batean...
- Janzteko estilo desberdinak daude, mundu guztia ez da berdin janzten, eta horretan ere talde desberdinak daude: "pijoak", arropa zabala erabiltzen dutenak... dena dela **modak eragina du beti** horietako bakoitzean.
- Geure itxurari begira zerbait egiten dugunean ez dugu pentsatzen osasuntsua den edo ez. **Ez dugu horri buruzko balorazio edo gogoetarik egiten**, adibidez: piercing bat jarri edo dieta egiten hasi behar dugunean ez dugu arriskuei buruzko balorazioa egiten, egin egiten dugu eta kito.
- Modak eragin handiagoa du neskenengan, baina mutilek ere gero eta gehiago zaintzen dugu itxura.
- Ixtorio bat izateko, besterik gabe, gorputzak garrantzi handia izan dezake. Baina harreman iraunkorrago bat izateko, ordea, gehiago eskatzen dugu.

10

NOLA JARDUN BEHAR DUGU?

- **Garen bezalakoak garela onartzea** litzateke egokiena, baina ez da gauza erraza, gure gurasoek beti esaten baitigute geu garela politenak eta ederrenak.
- Gure gorputzarekin konforme ez bagaude, uste dugu kirurgia estetikoak aukera onargarria izan daitekeela hobeto egoteko, baina aldi berean oso komenigarria da ariketa egitea eta elikadura zaintzea.
- Bada jende-mota bat axolarik ez zaiona berak bere burua nola ikusten duen, besteek nola ikusten duten baizik. Bestek nola ikusten gaituzten ez da hain garrantzitsua, baina guk sekulako garrantzia ematen diogu horri.

PROPOSATZEN DUGU...

- Jendea **bizimodu osasuntsua** egitera bultzatzeko, proposatzen dizuegu **era guztietako jendearekin** (helduak, gizenak ...) **kanpaina bat egitea**. Kanpaina horren helburua izango litzateke gazteon autoestimua handitzea eta borondatea sendotzea, nor bere burua onartu eta besteak diren bezala onar ditzan, haien itxurari bakarrik begiratu gabe.

Honako kontzeptuak lan daitezke:

- "Desberdinak izan arren, ez zara besteak baino gutxiago, denak gara berdinak".
- "Taila egokia dut"
- "Ez dago modarik"
- "Zu zeu izan"
- "Ondo eta gogoz jan ezazu"

PUBLIZITATEA

Batzuek esaten digute elikadura zaindu behar dugula, eta gu geure irudiaz zeharo arduratuta gabiltza, eta bitartean publizitatea gailentzen ari zaigu.

NOLA BIZI DUGU?

- Publizitateak gizon eta emakumearen **prototipo** batzuk sortu ditu, batere egiazkoak ez direnak. Iragarkietan dena oso ederra da, dena oso ondo dago, baina errealitatea ez da publizitatean agertzen den bezalako izaten, eta horrek osasun- eta autoestimu-arazoak sortu ohi ditu. Zergatik? Zer da publizitatean ederra izatea? Luzea eta indartsua izatea, pikorrik ez izatea, hortzetako aparatirik eta betaurrekorik ez eramatea, beti pozik ibiltzea, ligatzen, arazorik gabe...
- **Publizitateak** (aldizkarietako iragarkiak, telesailak eta famatuen kontakatilukeria, propaganda, Internet, etab.) **eragin handia** du gure janzkeran eta orrazkeran. Eragin hori handixeagoa edo txikixeagoa izan daiteke, gutako bakoitzak dugun nortasunaren arabera.
- Anorexiak jota eta osasuna galduta dabilen gazte-jendea ezagutzen dugu; neska batzuk geure oinak hondatzen ari gara zapata takoidun punta-luze horiekin, min handia ematen diguten arren horrela ibili nahi izaten baitugu, ederrago agertzegatik, modagatik.
- **Ezin dugu ezer egin publizitate-bonbardaketa horren aurka;** jantzi-dendetan hori besterik ez digute eskaintzen eta bertan dagoena erostea beste erremediorik ez zaigu geratzen. Beraz, horretaz jabetzen garen arren, azkenean denok antzeko jantziak daramatzaugu.
- Taila desberdinen inguruan arazo bat dugu. Komenigarria litzateke leku berean taila desberdinak aukeran izatea. Tarteko taila ez dutenentzat badira taila handiko jantziak dituzten dendak ere, baina ez dira modako dendak izaten.

NOLA JARDUN BEHAR DUGU?

- Gutako bakoitzak egoera hori aldatzeko, **argi ikusi behar genuke zer den ona guretzat**, baina hori ez da batere erraza. Gaietan dugun presioa dela-eta zaila da jakitea nola egongo ginatekeen ondoen. Gai honetan norberaren nortasuna eta autoestimua funtsezkoak dira.

PROPOSATZEN DUGU...

- Hain matxista ez den publizitate-mota egin eta iragarkietan agertzen diren **estereotipoak hautsi** egin behar dira.
- Udalari eskatzen diogu **kontrapublizitate-kanpainak egin ditzala**, norberaren irudiarekiko begirunea eta elikatze ohitura osasungarriak bultzatzeko.

Donostian, 2005eko apirilean

manifiesto

Cuando empezó el curso allá por octubre, profesores, monitores nos proponen a las chicas y chicos de Donostia/San Sebastián trabajar con el Ayuntamiento en una Audiencia Pública. Nos cuentan que se trata de informarnos, debatir, expresarnos, compartir ideas, buscar consensos, ponernos de acuerdo, ... en torno a un tema para después presentar formalmente al Ayuntamiento nuestras reflexiones y propuestas para que las estudien y vean si es posible llevarlas adelante o no

A algunos esto nos sonaba a nuevo, a otros no, habíamos participado en alguna Audiencia anterior. Para todos era un trabajo añadido, pero creímos que merecía la pena intentarlo; nos iba a servir además, para conocer a gente de nuestra edad de Barcelona.

Todavía nos llamó más la atención cuando nos dijeron que el tema, o mejor dicho los temas a tratar eran tres: las drogas, la alimentación y la sexualidad segura, todo ello dentro de un gran tema: "hábitos saludables". Precisamente ahora, a lo largo de este curso, por todos los lados nos llegan noticias que tienen que ver con esto: la obesidad, las operaciones de estética, el consumo de drogas, nuevas enfermedades relacionadas con estos consumos... y en nuestras casas desde que hemos empezado en secundaria es cuando más nos insisten en que tengamos cuidado, que les contemos, es ahora cuando están más asustados y a veces nos llegan a agobiar.

No os sonará raro si una vez más decimos que "no se nos entiende", por eso hemos pensado que es importante que todos demos un paso más y os contemos cómo nos sentimos y cómo vivimos estos temas.

Primero hemos visto que alrededor de todo esto las experiencias y la realidad de cada uno es muy diferente y los temas en sí hubieran dado para tres audiencias diferentes. Seguramente más que muchas propuestas concretas, que también las hay, lo que se puede encontrar en este manifiesto es un montón de pensamientos compartidos, que no es poco, hemos hablado sin presiones y escuchado mucho, nos hemos tenido que poner de acuerdo...

También nos han surgido nuevas dudas: ¿Todo este trabajo servirá para algo? ¿Nos harán algo de caso los políticos? ¿A quién le interesan todo este tipo de iniciativas? ¿Por qué? Quizá haya mucho que discutir sobre esto, quizá incluso pueda resultar un buen tema a plantear a los jóvenes que se embarcarán en este proyecto el año que viene...

Si os apetece "Quedamos!" en las siguientes páginas.



manifiesto

LAS DROGAS

Es un tema que nos preocupa mucho, sobre el que nos ha costado mucho ponernos de acuerdo; las experiencias que tenemos son muy diferentes... Qué, cuánto, cómo, dónde, problemas... Ahora os lo contamos.

¿CÓMO LO VEMOS EN DONOSTIA?

- En general, **el consumo de drogas en Donostia nos parece que es bastante alto**, sobre todo: alcohol, tabaco y cannabis. En comparación con estas, el consumo de otras drogas es pequeño/moderado. Además cada vez se empieza a consumir más joven y de todo.
- Dentro de las drogas, **el tabaco y los porros, son más de consumo diario y el alcohol de fin de semana**.
- En las discotecas (zona de Ilunbe) se consume pastillas y alcohol. Cuando más alcohol se consume es por la noche. También se consume en otros sitios como: la playa y Urgull, San Telmo, Plaza de la Constitución, Santa María, Plaza Trinidad, y Zuloaga para hacer litros, en los locales particulares que se alquilan, etc.
- **Para comprar alcohol o tabaco no hay ningún problema**, se compra en el supermercado o en los bares.

¿CÓMO LO VIVIMOS?

- **Entre nosotros y nosotras hay de todo. Quienes consumimos drogas lo hacemos por muchas razones:** para integrarnos mejor en el grupo, para no ser diferentes, para no sentirnos marginados, para sentirnos mayores, porque el efecto después de tomar drogas gusta (a corto plazo), para aguantar más tiempo de marcha, para no sentirse menos que los demás, por vergüenza, por probar, para pasarlo bien y hacer la fiesta más larga, para no aburrirnos tanto.
